

# Suzko Armen Historia G. Mujikaren Liburuan eta Geroko Beste Historia bat

Gregorio Mujikak, Eibarko historiaren liburua eskribitzean (**Monografía Histórica de la Villa de Eibar**, Irún, 1910) ondo ekian gerrateak diralata jardutzea baino zerbait gehiago zala errien kondaira.

Horregaitik, bertan, erriak sarri heuren gogoz kontra izaten dituen gerrateatik aparte, heuren eboluzinoan goraka dakarten bizitza erak inportantzia gehiago dauke. Erriko instituzioak, agintaritza gora-beherak, industriaren aldakuntzak, erriko obrarik nagusien egintzak, gizon ospetsuak, lana, artea... Danak dokumentuz ondo ornituak. Lahengo denporetan gure erria eta bertako giroa zer ziran agertzen deuskuan agiri aberatsa benetan.

Eibarko industriaren ahalmenak, armagintzatik aparte, textilgintza, erlojugintza, organugintza, eta era guztietako tresnak egiten zirala jakin leike. Baita erria gobernatzeko ziran ohituretan bertan be badauke gaurkoak zer ikasi. Bestalde, nun gelditu ete ziran orduango usak edo erribasoak «egurtzak», guztionak ziranak. Arteko obra nagusien gainean, Araoz eta Gregorio Fernández-en erretablauen barri zehatzak (bigarrenarena azken gerratean erre zan), edo Velázquez-en kuadru baten gora-beherak. Argi emoten ditu heuron barriak.

Ezta erreza konprenditzea erri bateko gauzaz ainbeste material jasotzea. Eta guztiak interesanteak, baxotxa bere mailan edo bere gainean.

Izugarria da G. Mujikak honetarako eukan bizkortasuna. Liburu honek, 1908-ko «Fiestas Euskaras»-en Eibarko ayuntamientoak antolatu eban saria irabazi eban.

XIV-garren mendeko barriren bat edo beste eukiarren, XVI-tik XIX-rakoa da liburuaren mamina. Liburu landua. Gaur egun, Eibarko edozer jakin nahi dabenak bertako iturrietara jo beharra dauka.

Ainbeste gauza jakingarrien artean dakarrenik sakonenetakoa da suzko armen historia. Zehatz-mehatz aztertzen ditu Europako armagintzaren barriak eta bardin Eibar eta bere ingurukoa. Ezta konformatzen armak eta heurak egiteko eregaz, baita be emoten ditu zenbatak eta zenbat espezialidadek parte artzen eben armagintzan eta produzino estadistikak eta armen salneurriak.

Sarri gertatzen jakuna da kanpokoa obetzat artzea, eta holako zerbait gertatu izan jaku Gregorio Mujikaren **Monografía**-gaz be. Errikoak ez deusagu emon behar daben garrantzia eta kanpokoa askok azertu dabena da.

Bere interesgarriaren neurritzat agiri hau emon nahi dot: Amar urte izango dira lotsa gutxigaz liburu honen suzko armen historia plajiatu zala. Moduz gainera plajiatu be, ezer barririk gehitu barik, puntutxo batzuetan bakarrik pixkat aldatuaz eskribitzeko forma, eta zenbait uts sartuaz, inoiz urteak be oker ipiniaz. Plajio hau, «Historia de las armas de fuego» izenez, **Ingenieria** eta **Metalurgia y Electricidad** aldizkariak argitaratu eben. Baina hori gutxi dalarik, Eibarren, ain interesantea zala ikusi zanez, bertan be argitaratzea pentsatu zan, eta Armeria-Eskolako Boletín de la Asociación de Antiguos Alumnos-en zatika argitaratu zan, 24-38 zenbakietan, **Ingenieria**-tik artua zala esanez. Emen beintzat, gutxienez nundik artua zan esaten zan; harek, lapurretan egin ebenez, ez eben esaten inundik artua zanik be.

Hor, nundik ezagutu genduan gure liburuaren garrantzia. Etxean geunkana auzoko espiluan ikusi genduanean. Egia esan, norpere begiko zamarra ez ei da ikusten.

Txarrenian be, eruan ebena ekarri genduan.

**JUAN SAN MARTIN**  
de la Academia de la Lengua Vasca

FERRETERIA INDUSTRIAL

**U N C E T A**

*Ibarrecruz, 14*

*Apartado 18*

*Teléfono 7110 00*

**e i b a r**